


NDF-REN AURREIKUSPENAK

Aurrekaririk gabeko krisi ekonomikoa

MUNDUKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa



2008 2009 2010 2011 2012 2013 2014 2015 2016 2017 2018 2019 2020 2021

Munduko aurreikuspen ekonomikoak beherantz berrikusi ditu NDFk ekaineko txostenean. Pandemiaren okertzeak, urtearen lehen hiruhilekoan espero baino hazkunde ekonomiko okerragoak jaso izanak eta bigarren hiruhilekoan maiztasun handiko adierazleen ahuleziak eragin dute erakundeak eskualde guztietako aurreikuspen ekonomikoak nabarmen jaitea.


Zehazki, Nazioarteko Diru Funtsaren arabera, munduko ekonomia %4,9 jaitsiko da 2020an, eta %5,4 haziko da 2021ean. Datu horiek 1,9 eta 0,4ko beherapena suposatzen dute, hurrenez hurren, apirileko aurreikuspenekin alderatuta.

NDF-REN AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK

	Oraingoak			Aurreko txostenarekiko aldeak	
	2019	2020	2021	2020	2021
Munduko ekonomia	2,9	-4,9	5,4	-1,9	-0,4
Ekonomia aurreratuak	1,7	-8,0	4,8	-1,9	0,3
AEB	2,3	-8,0	4,5	-2,1	-0,2
Eurogunea	1,3	-10,2	6,0	-2,7	1,3
Alemania	0,6	-7,8	5,4	-0,8	0,2
Frantzia	1,5	-12,5	7,3	-5,3	2,8
Italia	0,3	-12,8	6,3	-3,7	1,5
Espainia	2,0	-12,8	6,3	-4,8	2,0
Erresuma Batua	1,4	-10,2	6,3	-3,7	2,3
Japonia	0,7	-5,8	2,4	-0,6	-0,6
Garatzen ari diren herrialdeak	3,7	-3,0	5,9	-2,0	-0,7
Txina	6,1	1,0	8,2	-0,2	-1,0
India	4,2	-4,5	6,0	-6,4	-1,4
Errusia	1,3	-6,6	4,1	-1,1	0,6
Brasil	1,1	-9,1	3,6	-3,8	0,7


EKONOMIA AURRERATUEN BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




GARATZEN ARI DIREN EKONOMIEN BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




AEB-ETAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa



ERRESUMA BATUKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




2020an, familien kontsumoa nabarmen okertuko da ekonomia gehienetan. Halaber, inbertsioa murriztuko dela aurreikusten da, kapitaleko gastua atzeratzea eragiten duen ziurgabetasuneko ingurune batean. Pizgarriko politika publikoek konpentsatuko dute, neurri batean, barne eskari pribatuaren uzkuertzea. Iragarpenen arabera, munduko jarduerak hondoa joko du 2020ko bigarren hiruhilekoan eta hortik aurrera pixkanaka suspertuko da. 2021ean, 2019ko mailara iristea espero da.

Ziurgabetasun handia da pronostiko honen funtsezko elementua. Ekonomiaren bilakaera pandemiaren magnitudearen eta iraupenaren, beharrezko konfinamenduen, enpresak ixtearen ondorioen eta langileak lan merkatutik irtetearen arabera izango da, beste faktore batzuen artean.

ESPAINIAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: NDF.